

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Megatech Industries Amurrio, SL enpresarako 2019ko soldataren berrikuspena

Ebazpena, Lan eta Justizietako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Megatech Industries Amurrio, SL enpresaren hitzarmen kolektiboko 2019ko soldaten behin betiko berrikuspena erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 01100221012014.

AURREKARIAK

2019ko otsailaren 21ean aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuen eta langileen ordezkariak 2019ko otsailaren 6ko negoziazio-mahaian sinatutakoa, 2019ko behin betiko soldata berrikuspenen kariaz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren negoziazio batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 26a

Arabako lurralde ordezkaria
CARMEN DE CELIS CUEVAS

2019ko soldata gehikuntzak

Megatech Industries Amurrio, SLU hitzarmen kolektiboa

Batzorde parekideko kideak 2019ko otsailaren 6an bildu ziren:

2019ko soldata gehikuntza

Estatistikako Institutu Nazionaleko datuen arabera egiaztatu da KPI orokorraren 2018ko gehikuntza ehuneko 1,2koa izan dela.

Megatech Industrias Amurrioren II.hitzarmen kolektiboko 4. artikuluekin bat eginez, 2019rako ehuneko 2,20eko soldata gehikuntza egin beharko da 2018ko soldata taulekin alderatuz. Hala, talde profesionalen taula horiek modu honetan geratuko dira:

1. taldea	18.264,37 euro	Ehuneko 2,20	18.866,19 euro
2. taldea	19.345,85 euro	Ehuneko 2,20	19.771,46 euro
3. taldea	20.374,89 euro	Ehuneko 2,20	20.823,15 euro
301. taldea	22.102,63 euro	Ehuneko 2,20	22.588,88 euro
4. taldea	22.752,79 euro	Ehuneko 2,20	23.253,36 euro
5. taldea	25.539,61 euro	Ehuneko 2,20	26.101,49 euro
6. taldea	29.421,99 euro	Ehuneko 2,20	30.069,27 euro
7. taldea	35.302,08 euro	Ehuneko 2,20	36.078,73 euro
8. taldea	44.357,17 euro	Ehuneko 2,20	45.333,03 euro

5. artikulua Gehikuntza boluntarioko plusa

Ehuneko 1,20 gehituko da (2018ko KPI erreala)

6. artikulua Hitzarmen plusa

Ehuneko 1,20 gehituko da (2018ko KPI erreala)

9. artikulua Nekagarritasun plusa

Eguneko 6,78 eurori 2018ko KPI erreala gehituko zaio (ehuneko 1,20). 2019an lan egindako egun bakoitzeko 6,86 euro jasoko dira.

12. artikulua Jantokiko laguntza plusa

Urteko 775,36 euro gehituko zaizkio 2018ko KPI errealari (ehuneko 1,20). 2019an hilero 65,39 euro jasoko dira.

2019ko urteko kopurua 784,68 eurokoa izango da.

25. artikulua Gabonetako otzara

2018an jasotako 62,68 euroei 2018 urteko KPI gehituko zaio (ehuneko 1,20). 2019an jasoko den otzararen balioa 65,39 eurokoa izango da.